

## ALKATEEN ITUNA

Alkateen ituna Europako hainbat herrialdek boluntarioki hartutako konpromisoa da, Europar Batasunak energia politikan dituen helburuetatik haratago joateko asmoz, CO<sub>2</sub> isuria gutxitzearen inguruan, energia-eraginkortasunaren inguruan, eta baita energia berriztagarrien produkzio eta erabilera handitzearen inguruan ere. Europar Batasunak 20-20-20aren bitartez zehazten ditu 2020rako finkaturik dauden helburu hauek eta proiektu honen baitan hartzen dute, hain zuzen, Estatu kideek 2020rako CO<sub>2</sub> isuria %20an gutxitzeko konpromisoa.

Helburu hauek lortzeko asmoz, udalerriek Energia Berriztagarrien Ekintza Plana diseinatu dute, non 2020a bitarte udalerrri horietan energia aurrezteko eman beharreko pausoak zehazten diren.

Energia aurrezteko eta energia berriztagarrien promoziorako erabiliko diren ekintza hauek guztiak, energia kontsumitzen den sektore guztietan jarriko dira martxan, hau da, bai udal-bulegoetan, baita etxebizitza zein garraio eta dendetan ere. Horregatik, herritarren inplikazioa beharrezkoa da.

Herritarrek asmo handiko ekimen honetan parte hartzeko nahian, ITUNA sinatu duten udalerrri guztiek “Energiaren Egunak” antolatzeko konpromisoa hartu dute, Europar Komisioaren eta beste hainbat erakunderen laguntzaz. Gauzak horrela, herritarrek zuzenean ikusi ahal izango dituzte energiaren erabilera zentzudunago batek eskaintzen dituen aukera eta onurak. Konpromiso honen emaitza dira, hain zuzen, “Días de la Energía” edo “Energiaren Egunak”.

Gaur egun, Europako 4.000 udalerrri inguru batu dira jada asmo handiko ekimen honetara, 160 milioi pertsona baina gehiago inplikatur.

Euskadin, esaterako, 16 udalerririk sinatu dute ITUNA, Euskal Herriko biztanleriaren %46a:

Donostia-San Sebastián	Basauri
Vitoria-Gasteiz	Oñati
Areatza	Tolosa
Bilbo	Portugalete
Irun	Hondarribia
Abanto – Zierbena	Usurbil
Balmaseda	
Amezketza	